

# Larramendi Ikastola

HEZKUNTZA PROIEKTUA

MUNGIAKO HEZKUNTZA KOOPERATIBA

TEL: 94 674 90 80  
idazkaritza@larramendi-ikastola.net  
Madalen Bidea, 20. MUNGIA  
[www.larramendi-ikastola.eus](http://www.larramendi-ikastola.eus)



**Larramendi  
Ikastola**  
Alkar ekin, mundurako hezi





# **Aurkibidea**

Sarrera

1.- Testuinguruaren azterketa

1.1.- Larramendi Ikastolaren ezaugarriak

1.2.- Gaurko eta etorkizuneko gizartearen ezaugarriek eskatzen duten hezkuntza-eredua

2.- Nortasun ezaugarriak

2.1.- Nortzuk gara?

2.2.- Zer lortu nahi dugu?

2.3.- Zein dira lehenesten ditugun balioak?

3.- Hezkuntza-eredu pedagogikoa

3.1.- Ikaslearen irteera-profila

3.2.- Irakaslearen profila

3.3.- Familiaren eta hezkuntza komunitatearen eredua

3.4.- Kalitatezko hezkuntzaren ezaugarriak

4.- Antolaketa- eta kudeaketa-eredua

4.1.- Oinarriak

4.2.- Gobernu- eta funtzionamendu- egituren ikuspegia

4.3.- Kudeaketa aurreratuaren ezaugarriak




# Sarrera

Bete berri da Larramendi Ikastolaren sorreraren 50. urteurrena (1967-2017). Abagune ezin hobe besterik urrats berri baten atarian, ilusioz Hezkuntza Proiektua berrikusteko eta, horretan oinarrituz, Ikastola Proiektua eguneratzeko.


Dokumentu honetan, Ikastola Proiektuaren abiapuntua eta ardatza den Hezkuntza Proiektua aurkezten da.

Ikastola Proiektuaren osagaiak dira izaera egonkorragoa duten proiektu instituzionalak: Hezkuntza Proiektua, Curriculum Proiektua, Hizkuntza Proiektua eta barne funtzionamendurako Antolaketa eta Bizikidetzaren Araudia; unean uneko beharren arabera eraikitzen diren eta izaera aldakorragoa duten era askotako proiektu estrategikoak; eta eguneroko funtzionamendu pedagogiko eta kudeaketarako prozesuak eta urteko plana eta memoria. Egitasmo horiek guztiek osatzen dute Ikastola Proiektua.



Hezkuntza Proiektua, Ikastola Proiektuan garatzen den hezkuntzako esku-hartze prozesu osoa koherentziaz zuzentzea ahalbideratzen duen abiapuntuko proposamen trinkoa eta integrala da.

Hezkuntza Proiektu honek ondorengo atalak ditu:



Hona hemen Hezkuntza Proiektuaren ezaugarri batzuk:

- > Hezkuntza Proiektuak, ikastola sortu zeneko xedean, eta egunean eguneko testuinguruan eta egoeran oinarrituz, hezkuntzaren ikuspegi ideala eta aukera nagusiak era trinkoan adierazten ditu.
- > Ikastola Proiektuko beste osagai guztien oinarria da eta egunez egunekoan erabakiak hartzeko erreferentea da.
- Ikastolako hezkuntza komunitate osoak parte hartzen du eta guztien ekarpenak biltzen ditu.
- > Ikastolako eragile guztiak lotzen ditu eta norabide berean jokatzeko balio du.
- Ikastolaren dokumentu programatikoa da eta hezkuntza ereduaren aurkezpena (gizartean, instituzioen aurrean, guraso berriei, ...) egiteko balio du.
- > Izaera egonkorra du, baina era berean bizia eta funtzionala izatea nahi bada, berrikus- teko eta eguneratzeko modukoa izan behar da.

Larramendi Ikastolaren Hezkuntza Proiektuaren erreferentziak eta mugarri garrantzitsuak hauek dira:

- > Larramendi Ikastolak orain arte egindako ibilbidea eta Larramendi Ikastola irakaskuntzako kooperatiba elkartearen Estatutuak, proiektuaren abiapuntu direnak.
- > Ikastolen Elkartearen gidaritzapean eraikitako Derrigorrezko Eskolaldirako Euskal Curriculum (2006) eta Berariazko Euskal Curriculum (2008).
- > Euskal Curriculumeko egitasmoan oinarrituz, Euskal Autonomia Erkidegoan ezarritako 2007ko eta 2015-16ko curriculum Dekretuak.
- > Euskal Curriculumaren eta EAEko dekretuen oinarrian dauden:
  - >> UNESCOren "Hezkuntza: altxor hezkutua". Delors informea (1996).
  - >> UNESCOren "Hezkuntza berraztertzea: Mundu osoko ongia lortzeko bidea?" (2015).
  - >> Europako Erkidegoetako Batzordeak kompetentzia giltzarri edo oinarritzkoen gainean egindako gomendioa (2006)



# 1. Testuinguaren azterketa

Atal honetan, ikastolaren ezaugarri nagusiak eta hezkuntzaren norabidea hautatzeko kontuan hartzekoak diren gaurko eta etorkizuneko gizartearen ezaugarri nagusiak nabarmentzen dira.

## 1.1. Larramendi ikastolaren ezaugarriak

0 eta 18 urte arteko hezkuntza eskaintzen du. 2017-18 ikasturtean, 1.200 ikaslek, 110 irakaslek eta 20 administrazio eta zerbitzu langilek osatzen dute ikastola. Haur Eskolan 105 ikasle eta 14 irakasle dago; Haur Hezkuntzan, 216 ikasle eta 15 irakasle; Lehen Hezkuntzan, 464 ikasle eta 32 irakasle; Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan, 449 ikasle eta 49 irakasle. Ikastola osatzen dutenen %60a Mungiakoa da. Gainontzekoak, inguruneak dira: Gamiz-Fika, Gatika, Derio, Zamudio, Larrabetzu, Bakio, Plentzia, Gorniz, Lemoiz, ...

Ikastolaren titularra Larramendi Ikastola Irakaskuntzako Kooperatiba Elkarte da, indarrean dagoen Euskadiko Kooperatiben Legearen, Larramendi Ikastolako Estatutuen eta eragin diezaioketen beste legezko aginduen arabera arautzen dena. Ikastolako Estatutuetan (2. Artikulua) ondorengo xedeak aipatzen dira:


- > Irakaskuntza arautua eskaintzea ziklo eta maila guztietan; arautu gabeko irakaskuntza ere eskainiko da, bazkideek hala erabakiz gero.
- > Hezkuntza eskaintzaren helburua euskal hizkuntza eta kultura sustatzea eta garatzea izango da bereziki, eta eskaintza eleanitza izango da: izan ere, euskara erabiliko da komunikazio hizkuntza gisa, baina aldi berean ikasleek gaztelania ongi ikastea bermatu eta beste hizkuntza batzuk ikastea sustatuko du eredu honek.
- > Hezkuntza zerbitzuak beharrezkoa den kalitate pedagogikoa bermatuko du, eta irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko prozesuak sustatuko ditu etengabe, ikasleei irakasgaien inguruko prestakuntza emateko, euren izaera garatzen laguntzeko eta pertsona libre et arduratsuak izan daitezzen, inguru sozialean erabat integraturik.
- > Eskaintza pedagogikoaz gain, kirolarekin, kulturarekin eta aisialdiarekin lotutako jarduerak osagarriak ere eskainiko ditu, aurreko paragrafoetan adierazitako helburu guztiak lortze aldera.
- > Kooperatiba sozietate honen helburuen artean ikasleen gurasoei bideratutako zerbitzuak eman eta jarduerak sustatzea ere badago (Guraso Eskola, hitzaldiak, topaketak, etab); bereziki ikastolan haien parte-hartzea sustatzen duten jarduerak eta euren seme-alaben ikasketa prozesurako eta garapen pertsonalerako lagungarri izan daitezkeenak.

Ikastolako hezkuntza eskaintza zabala da: gizarte osoari zuzendua eta zerbitzu publikoen aldekoa. Izan ere, diskriminazioa saihestu nahi du, bai arrazoi ekonomikoengatik, bai bestelako arrazoiengatik. Hori dela eta, kooperatibak ez du irabazi asmorik. Finantzaketaren iturri nagusia Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin duen hezkuntza-itunaren bidez jasotzen du eta gurasoen ekarpenekin osatzen du.

## Testuingurua

Mungiako Larramendi Ikastolak batez ere Mungiako zein Mungialdeko, Uribe-kostako eta Txorierriko herrietako ikasleak erakartzen ditu. 2017-18. ikasturteko datuen arabera, ikaslegoaren %60a Mungian bizi dira eta %40a inguruko herrietan.

Mungialdea Bizkaiko erdialdean dagoen eskualdea da. Uribe eskualde historiko handi-goaren zati da. 9 herrik osatzen dute eta 160 km<sup>2</sup> inguruko azalera du. Mungialdeko eskualde-esparruan, 2017.eko datuen arabera, 26.584 biztanle bizi da, horietatik 17.061 biztanle Mungian bizi delarik.



Urtea	Ezaugarriak	Mungia	Bizkaia	EAE
2016	0-19 urte 65 urte baino gehiago	% 22,55 % 15,89	% 17,47 % 21,90	% 18,33 % 21,64
2016	Atzerrian jaiotakoak	% 10,48	% 8,43	% 9,05
2016	Euskaldunak	% 55,90	%27,60	% 33,90
2011	Euskaldun hartzaileak	% 21,70	% 20,40	% 19,10
(Mungia)	Erdaldunak	% 22,30	% 52,00	% 47,00
2015	Bataz besteko familien errenta	48.432 €	40.887 €	41.058 €
	Bataz besteko errenta pertsonala	22.675 €	19.589 €	19.968 €
2012	Ekonomiaren balio erantsia:			
	- Nekazaritza eta abeltzaintza	% 0,60	% 0,80	% 0,80
	- Industria eta energia	% 40,00	% 19,10	% 24,20
	- Eraikuntza	% 8,60	% 7,30	% 7,00
	- Zerbitzuak	% 50,80	% 72,80	% 68,00
2016	Langabeziaren tasa	% 14,00	% 17,00	% 15,00
2011	Ikasketa maila altua	% 17,29	% 15,14	% 14,35
2016	Ikastetxe publikoak	% 46,58	% 50,09	% 52,54
	Itunpeko ikastetxeak	% 53,42	% 49,90	% 47,46

Mungia eta inguruan hezkuntza eskaintza ezberdina aurkitu dezakegu: sare publikoan Uriguen haur eskola, Legarda ikastetxea, San Pedro eta Lauaxeta institutua, Laukariz, Gatika eta Laukizko eskolak, Derioko eskola eta institutua. Sare konzertatuan Bentades ikastetxea Mungian, Derioko Txorierra politeknika, Lauro Ikastola, La Merced, Munabe eta Urdaneta Loion, Colegio Vizcaya Zamudion.

Esan beharra dago, Larramendi Ikastola dela Ikastolen Elkartearen sarean dagoen inguruko hezkuntza kooperatiba bakarra dela Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH eskainiz. Batxilergoari dagokionez, Txorierra politeknikoa eta Larramendi Ikastola aurkitzen dira ezaugarri horrekin.

## Historia laburra

Larramendi Ikastola 1967. urtean sortu zen 7 ikaslerekin Mungiako Eleizako lokaletan, "Escuela Parroquial Larramendi" izenarekin eta hasieratik "ikastola" izena hartuz.

1969an hiru andereño eta 98 ikasle zituen Ikastolak. Dena zegoen egiteko: egitura, materiala, antolaketa, ... baina imajinarioari eta mugarik gabeko inplikazioari esker aurrera egin zuen. Kontra zegoen egoera politikoari eta hezkuntza-legeriari aurre eginez ikastola handitzen joan zen, proiektua sendotzen eta lokal berriak topatzen, herrian gela berriak osatu zirelarik. Dirua ateratzeko, festibalak, Olentzero, txosnak eta abar antolatzen ziren.

1978an atera zen 1964an jaiotako 10 ikasleko lehen promozioa O.H.O.ko 8.maila osatuta. Hauek eta 1965an jaiotakoek ezin izan zuten batxilergoa egin ikastolan.

Proiektua aurrera zihoan, baita handitzen ere. 1978an Mungiako Llona auzoan, abeltzaintza-eremu bat erosteko aukera agertu eta ikastola bertara eramateko prozesua hasi zen. Bertako pabiloiak atondu ziren meritu handiko auzolanari esker ikastola "ikaragarri polita" geratu zen paraje natural eta zabal batetan.

1979an "Larramendi Ikastola kooperatiba" sortu zen kurtso bakoitzeko (3 urte-8.maila) talde bakarrarekin.

1984an, batxilergoa ikastolan amaitu zueneko lehen promozioa atera zen. Ikasle horiek 1966an jaiotakoak izan ziren.

1993ko Euskal Eskola Publikoaren legearen ondorioz, sare konzertatua eta publikoaren arteko erabakia hartu behar izan zen. Tentsio handiko momentuak bizi eta ostean, sare konzertatuan jarraitzeko erabakia hartu zen.

"Erdi geugaz" lemarekin Ibilaldia ospatu zen Mungian 1998ko Maiatzaren 31n. Urte osoko lanari esker, arrakasta handia izan zuen eta lortutako diruarekin eraikin berri bat altxatu zen. Ikastola hazten zihoan eta horrekin batera, hirugarren lerroa sendotzen joan zen. Azpiegiturak ere egokitu egin behar izan ziren hazkunderari erantzuteko.

2015. urtetik aurrera, kompetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo jarraituz, ikastola eraldaketa prozesu sakon batean murgilduta dago.

2017an Ikastolak 50 urte bete ditu eta, horrekin batera, ikastolaren bigarren Ibilaldia aurrera eramanez zen "Egunero alkarregaz" leloarekin, eraldaketa prozesu orokorrari bultzada eta indarra emanez.



## Kokapena

Larramendi Ikastola, Mungiako Llona auzoan kokatuta dago, eremu naturalean, hirigunetik 3 kilometrotara. Ia 5 hektarea betetzen ditu. Horretatik, eraikinek 9.000m<sup>2</sup> hartzen dituzte. Gainontzekoa, jolas eta espazio zabalak dira. Egitura horizontala du, pabiloi ezberdinetan bananduta: 11 eraikin nagusi dago 1.400m<sup>2</sup> duen zelai estalia, asfaltatutako bi jolastoki, 6.000m<sup>2</sup>-ko arezko futbol zelaia, atletismo pista eta bi aparkaleku.



## 1.2. Gaurko eta etorkizuneko gizartearen ezaugarriek eskatzen duten hezkuntza-eredua

Larramendi ikastola, hasierako euskal hezkuntzaren konpromisoari leialtasunez eutsi ahal izateko, gizartearen gertatzen ari diren aldaketa eta berrikuntzetara egokitu beharra dauka. Gaurko gizartea aurrekoa baino askoz ere konplexuagoa da eta gauzak gero eta arinago aldatzen ari dira. Gainera, egungo eta etorkizuneko gizarteari buruzko ondorengo ezaugarriak aipatu daitezke:

> **Ekonomiaren globalizazioa:** lanpostuen mugikortasun geografikoa gero eta handiagoa izango da, egingo ditugun lanak gero eta aldakorragoak izango dira, norberaren kontura era autonomoan eta kooperatiboan lana egitea gero gehiago eskatuko da.

> **Zientziaren eta teknologiaren etengabeko berrikuntzak:** adimen artifizialaren aplikazioaren ondorioak (robotak...), ezin dugu orain irudikatu, baina aldatuko dute ekoizteko eta bizitzeko gaurko modua. Horrekin batera, ernaltzeko eta osasuna zaintzeko bideak eta bizitzaren iraupena aldatuko dira, etxeen eta hirien eraikuntza eta garraio-bideak ere bai... Aldaketa batzuk irudikatzen ditugu, beste asko ez, eta nora goazen ez dakigu.

> **Gizarte bizitzaren antolaketa:** familia ereduak aldatzen ari da, erlijioen eragina ere bai, hizkuntza eta kultur aniztasuna gero eta handiagoak dira, naturaren zaintza eta garapen jasangarria bizitzaren eta gizartearen etorkizunerako garrantzizkoak izango dira, gizarte-ko erabakietan partaidetza eta demokrazia gehiago eskatzen eta eskatuko da, bai Euskal Herrian bai Europan bai munduan aginte politikoaren eraketa eta lidergoa aldatuko dira, eta erronka berria partikularraren eta unibertsalaren arteko oreka lortzea izango da.

> **Ezagutzaren stock-a (bilduma):** gizakiak historian zehar sortutako eta metatutako ezagutza gero eta epe laburragoan bikoizten da. XIX. gizaldi osoa (100 urte) behar omen izan zen ordura arteko ezagutzak bikoizteko. 1925erako (25 urteko epean) bikoiztu omen ziren berriro ezagutzak. Orain 2 urte behar omen dira eta, diotenez, 2030. urtean 12 ordu behar izango omen dira ezagutza kopurua bikoizteko.

Nola prestatu belaunaldi berriak ezezaguna zaigun bizimodurako, existitzen ez diren lanpostuetarako, asmatu ez diren teknologiak erabiltzeko, irudikatzen ez ditugun arazoak konpontzeko?

Garai batean, hezkuntzaren eredu akademikoaren xedea alfabetatzea (irakurketa, idazketa, matematika) eta metatutako ezagutzaren oinarriak belaunaldi batetik bestera eskualdatzea zen. Eredu horrek urte askotan iraun du eta balio izan du egonkorra izan den gizartean. Gaur egungo gizartean, ordea, eta belaunaldi berriak etorkizunean bizitzeko prestatu nahi bada, hezkuntza-eredu akademikoak ez du balio.

Gaurko eta etorkizuneko gizartean bizitzeko, etengabe berritzen ari den baliagarria eta fida-garria den informazioa eskuratzen, iturrien egokitasuna ebaluatzen, hautatzen, gordetzen eta berreskuratzen jakitea. Garrantzizkoa da eta izango da. Informazioaren gizartean bizitzeko prestatzea, ordea, ez da nahikoa, eta informaziotik ezagutzara igarotzea da erronka. Horretarako, informazioa eta emozioak ondo ulertzeko (pentsamendu analitikoa) eta ulertutakoa zuzen baloratzeko (pentsamendu kritikoa) eta hitzez, hitzik gabe eta IKT baliabideak erabiliz adierazteko, trebetasunak behar dira. Are gehiago, eskuratutako informazioak eta barneratutako ezagutzak beharren arabera hautatzea, berriak sortzea (sormena) eta erabiltzea (ekintzailetza) eskatzen da, bizitzako etengabe aldatzen diren egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan era konpetentean erantzun ahal izateko. Era konpetentean aritzeko, adimen interpertsonala (enpatia, asertibitatea, era kooperatiboan aritzea, balio etikoak barneratzea eta gatazkak konpontzea) eta adimen intrapertsonala (metakognizioa, autokontzeptua, autoestimua, autonomia) behar dira.

Ziurgabetasuneko gaurko eta etorkizuneko gizartean bizitzeko, pertsona osoaren garapena erdigunean jartzen duen konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredu pedagogikoaren hautua da egokiena.

# 2. Nortasun ezaugarriak

Hezkuntza Proiektuaren atal honetan, nortzuk garen azaltzen da, hau da, ikastolaren izaera eta ezaugarri nagusiak era trinkoan jasotzen dira; ikastolak zer lortu nahi duen edo hezkuntzari buruz duen ikuspegia jasotzen da; eta ikastolaren izaera eta ikuspegia gauzatzeko lehenesten diren balioak jasotzen dira. Atal hau, Hezkuntza Proiektuaren eta Ikastola Proiektu osoaren enbrioia da.

## 2.1. Nor gara?

Larramendi Ikastola Mungialdeko hezkuntza kooperatiba da:

- Ikastola gara:

- > Herri inizatibaz, herritik eta herriarentzat, euskara eta euskal kultura sustatzeko asmoz sortutako ekimena da.
- > Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometiturik, beste hizkuntza eta kulturetara irekia dagoen ikastetxe euskalduna da.
- > Familien ekimenez sortutakoa, seme-alaben heziketaren ardura irakasleekin eta gizartearekin batera bideratzeko asmoz.
- > Ikastolako komunitateak bere burua familiazat du, izaeraren ezaugarri garrantzitsua da eta proiektuaren eraikuntzako zeinutzat dauka ezaugarri hori ikastolak.
- > Etengabeko hezkuntza berrikuntzan oinarritutako hezkuntza proiektu berezkoa eta aurreratua dugu.
- > Euskal Herriko beste ikastolekin batera Ikastolen Elkarteko kide gara eta Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba osatzen dugu.

- Hezkuntza kooperatiba gara:

- > Herri ekimenean oinarrituz, ikasleen gurasoak (ordezkariak, tutoreak) eta laguntzaileek sortutako hezkuntza elkartea gara eta gure egitekoa, gure artean elkar lagunduz eta auzo lanean, seme-alaben gaitasunak garatzea eta bizitzarako ondo prestatzea da.
- > Jaiotzetik unibertsitatera arteko (0-18) hezkuntza integrala eskaintzen dugu.
- > Irakaskuntza Kooperatiba Elkartearen forma juridikoa dugu.



- > Irabazi asmorik gabeko erakundea gara.
- > Ikasleen hezkuntza inklusiboa eta pertsonalizatua bultzatzen dugu.
- > Ikasleek, gurasoek, irakasleek eta laguntzaileek osatutako hezkuntza komunitatea gara.
- > Hezkuntza komunikatetako eragile guztien partaidetza demokratikoa eta lankidetzat sustatzen dugu.

- Mungialdean gaude:

- > Naturaz inguratutako leku paregabearen kokatuta gaude.
- > Mungiako eta inguruko herrietako berariazko ezaugarrietan oinarrituz, euskara eta euskal kulturaren biziberritzearen eragile gara eta hezkuntza zerbitzua eskaintzen dugu.
- > Euskal Autonomia Erkidegoan kokatuta gaude eta beste ikastetxeekin batera hezkuntza-sistema osatzen dugu.
- > Euskal Herrian kokatuz, Europara eta mundura zabalik gaude.

- Larramendi da ikastolaren izena:

- > Aita Larramendiren buru argitasuna, zentzu kritikoa, pentsamendu sortzailea, gizarte ekintzaile eta ardura, euskal zaletasuna eta euskal kulturarekiko konpromisoa eredutzat hartzen ditugu.

## 2.2. Zer lortu nahi dugu?

Larramendi Ikastolaren egitekoaren erdigunea ikasleak dira. Ikasle bakoitzaren interesgu-neak eta beharrak kontuan hartuz, indarguneak sustatu eta, horietan oinarrituz, ahuleziak gainditzeko lagundu nahi dugu. Gure azken helburua seme-alabak helduarorako eta bizitza osorako ondo prestatzea da, beraien bizitza zentzuz eta arduraz gidatzeko, eta bizitza ona eramateko eta ondo bizitzeko gai izan daitezen.

Horretarako,

- Bizitzaren dimentsio guztietan -pertsonala, soziala, akademikoa eta lan mundukoa- eraginkortasunez eta arduraz ekiteko, ondo prestatutako eta oinarri sendoko pertsonak hezi nahi ditugu.
- Pertsona osoaren garapenaren oinarriak -gizabanako-gizartekide eta izadi-kide gisa- era orekatuan finkatu nahi ditugu.
- Oinarrizko zehar-konpetentziak eta diziplina-barruko konpetentziak, hau da, bizitzarako ezinbestekoak direnak, bikaintasunez eskuratzen dituzten pertsonak nahi ditugu.
- Euskal Herrian eta munduan bizitzeko euskal kulturaren eta kultura unibertsalaren oinarriak eskuratu dituzten eta euskara ardatz duten pertsona eleaniztunak hezi nahi ditugu.

- Ondorengo ikasketak egiteko nahiz lanean hasteko eta bizitzan zehar etengabe ikasteko eta prestatzeko motibazioa duten pertsonak hezi nahi ditugu.

## 2.3. Zein dira lehenesten ditugun balioak?


Larramendi Ikastolaren izaeran oinarrituz eta bere egitekoa betetzeko ondorengo balioak lehenesten ditugu:

- **Euskalduntasuna:** Euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometitutako taldea gara. Euskara da hezkuntza prozesuko eta, oro har, ikastolako bizitzan ahoz eta idatziz erabiltzeko lehen hizkuntza. Era berean, berariazko euskal kulturaren transmisioa eta atxikimendua irakaskuntzaren, eta ikastolako eta ikastolatik kanpoko ekintzen bidez eragingo dira.
- **Gizarte ardura:** Gizartearen eraldaketa eta garapenean paper garrantzitsua betetzen dugu. Mungia, inguruko herri eta ingurumenarekiko konpromiso sendoa.
- **Inklusibotasuna:** Giza duintasunaren balioa funtsezko irizpide etiko gisa aintzat hartzea, pertsona guztiei irekita egotea, eta ikasleen gaitasunak ahal bezain beste garatzea dira gure helburuak.
- **Aniztasuna:** Aniztasunera irekiak gaude, ezberdintasunaren aurrean tolerantziaz eta elkar ulertzeaz haratago, alde bikotasunaren eraginez elkar aberastea dakarrena.
- **Aukera ez konfesionala:** Ikuskera espiritualaren eta erlijiosoaren balioa onartzen da eta kide guztien sinesmen erlijiosoak, oinarritzko eskubideak urratzen ez dituzten neurrian, errespetatzen dira, baina inolako erlijiora atxekitu gabe.
- **Hezkidetzak:** Harreman parekideak sustatzea eta mota guztietako bazterketen nahiz genero-indarkeriaren aurkako jarreretan hezten dugu.
- **Erlazioak:** Eragile ezberdinen arteko ulermena eta adostasuna erraztu eta konfiantzan oinarrituz, elkar laguntza sustatzen duten erlazioak sustatu nahi ditugu.
- **Parte-hartzea:** Proiektu partekatua osatzen dugu. Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien ekarpenak bideratuz.
- **Elkarlana:** Ikasle, guraso, langile eta hezkuntza-komunitatea osatzen duten guztien artean osagarritasuna bilatuz indarrak batzen ditugu. Talde lana eta esfortzu partekatuak sustatzen ditugu.
- **Gardentasuna:** Informazio eta komunikazioan, arazoaren aurrean eta kudeaketan.
- **Profesionaltasuna:** Egiten duguna era egokian eta eraginkortasunez egiten dugu. Etengabeko prestakuntza eta zerbitzurako jarrera.
- **Berrikuntza:** Etorkizunari aurre hartuz, bide berriak zabalduz, modu irekian, malgutasunez, guztion artean eraikitzen ditugu.
- **Erantzukizuna:** Partekatua, bakoitzak bere esparruan. Adosten ditugun helburuen eta egiten ditugun ekintzen arteko koherentzia. Barnera eta kanpora begirako ardura eta sinesgarritasuna.

# 3. Hezkuntza-eredu pedagogikoa

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren muina, ikasketak amaitzen direnean zer-nolako ikasle-mota espero den (irteera-profila) definitzea da. Ardatz horren inguruan bi eratako osagaiak daude:

- Batetik, ikaslearen irteera-profila erdiesteko, zer-nolako eragileak, hau da, irakasleak, familiak eta gizarte ezaugarriak behar diren.
- Bestetik, prozesuei begira, zein diren ikaslearen irteera-profila erdiesteko, kalitatezko hezkuntzaren, eta metodologiaren eta ebaluazioaren ezaugarri nagusiak.




Ikaslearen irteera-profila, aipatu eragile eta prozesuko baldintzen eraginez lortzen da, baina, era berean, ikaslearen irteera-profila irakaslearen-profila, familia-eredua, gizarte-eredua eta prozesuak nola bideratu behar diren finkatzeko abiapuntua eta erreferentzia da.

## 3.1. Ikaslearen irteera-profila

“Nortasun ezaugarriak” atalean esandakoa gogoratzuz, Larramendi Ikastolaren azken helburua seme-alabak helduarorako eta bizitza osorako ondo prestatzea da, beraien bizitza zentzuz eta arduraz gidatzeko, eta bizitza ona eramateko eta ondo bizitzeko gai izan daitezen.

Horretarako berme onena **oinarrizko konpetentziak** (zehar-konpetentziak eta diziplina-barrukoak) eskuratzea da.





- Oinarrizko zehar kompetentziak
- Oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplina-barruko kompetentziak lortzeko egoerak eta bizitzako egoerak
- Oinarrizko Hezkuntzaren eta Batxilegoaren xedea

Irudian hiru esparru bereizten dira. Erdigunean oinarrizko bost zehar-kompetentzien aipamena egiten da: ikasten eta pentsatzen ikasi, ekiten eta egiten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, norbera izaten ikasi eta komunikatzen ikasi.

- Bereiztea komeni da, izan ere, zehar-kompetentzia bakoitza lantzeko berariazko prozedurak daude. Baina bereiztea bezain komenigarria da, ekintzak gauzatzerakoan, zehar-kompetentzia guztien arteko lotura ikustea: zerbait ondo egiteko, era osagarrian, ondo pentsatzen, taldean egiten, komunikatzen eta izaten jakin behar da.

- Zehar-kompetentzien zehar-izaera adierazteko, jira-biran dagoen gurpilaren irudia erabiltzen da. Zehar-kompetentzia bakoitza eta guztiak diziplina-barruko kompetentzien arlo/ikasgaietan eta bizitzako egoeretan uztartuz lantzen dira.

- Bost zehar-kompetentzia horien nukleoan komunikazioa dago. Oinarrizko zehar-kompetentzia guztiek dute zehar-izaera, baina "komunikatzeko" kompetentziak zehar izaera du gainerako zehar-kompetentziekiko. Izan ere, komunikazioaren bidez gauzatzen dira oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplina-barrukoak lortzeko prozesuak.

Tarteko esparruan, bizitzako eguneroko egoeren eta diziplina-barruko oinarrizko konpetentzien aipamena egiten da. Oinarrizko zehar-konpetentziak eskolaz kanpoko eguneroko bizitzako era guztietako egoeretan (familia, aisia, lagunartea, komunikabideak...), eta eskola barruko egoera informaletan eta diziplina-barruko egoera formaletan uztartuz lortzen dira. Oinarrizko zehar-konpetentzien lorpena hezkuntza eragile guztien arteko lankidetzaren emaitza da. Diziplina-barruko oinarrizko konpetentzien lorpena, aldiz, irakasleen ardura da.

Kanpoko esparruan hezkuntzaren xedearen aipamena egiten da. Hezkuntzaren xedeak lortzeko bidea oinarrizko zehar-konpetentziak eguneroko bizitzako egoeretan eta diziplina-barruko egoeretan uztartzea da.

Oinarrizko zehar-konpetentziak bizitzako alor eta egoera pertsonaletan, sozialetan, akademikoetan eta lanekoetan –diziplina-arlo/ikasgai guztietan nahiz eguneroko bizitzan–, arazoak eraginkortasunez konpontzeko behar direnak dira. Arlo edo ikasgai guztietan batera lan eginez sustatu eta sendotu behar dira, eta bizitzako alor eta egoera guztietan integratuz eskuratzen eta aplikatzen dira.

Honako hauek dira oinarrizko zehar-konpetentziak:

## **Ikasten eta pentsatzen ikasi:**

- > Bere burua, gizartea, natura... behatzeko eta ezagutzeko jakinmina izatea.
- > Hainbat iturritan (inprimatuak, ahozkoak, ikus-entzunezkoak, digitalak...) informazioa jasotzea, bilatzea, aukeratzea, erregistratzea, eta iturrien egokitasuna ebaluatzea.
- > Informazioa eta emozioak ulertzea eta ulertutakoa adieraztea (pentsamendu analitikoa)
- > Informazioa eta emozioak ebaluatzea, eta ebaluatutakoa adieraztea (pentsamendu kritikoa)
- > Aurre iritzirik eta epaiketarik gabeko pentsamendu irekia eta malgua izatea (open mind), ideia berriak eta originalak esploratzea, sortzea eta adieraztea (pentsamendu sortzailea).
- > Bere ikasteko estiloaren indar guneak eta ahuleziak ezagutzea.
- > Bere ikasteko lan-ohiturak, prozesuak eta denbora era autonomoan eraginkortasunez antolatzea.
- > Ikasitakoa beste egoera batzuetara transferitzea eta aplikatzea.

## **Ekiten eta egiten ikasi:**

- > Inork behartu gabe inizatibak hartzea.
- > Esandako bete beharrak eta bere kabuz hartutako erabakiak arduraz betetzea.
- > Egitasmoak gauzatzen hasi aurretik bideragarritasuna aztertzea, eta bere ahalmenak eta mugak kontuan hartzea.
- > Egitasmoak planifikatzeko, garatzeko eta ebaluatzeko lagungarriak diren prozedurak eta teknikak erabiltzea.

- > Zailtasunen eta uste gabeko aldaketen edo frustrazioen aurrean, soseguz jokatzeko eta iraunkortasuna erakustea.
- > Egitasmoak eta ekintzak azaltzeko ahozko eta idatzizko aurkezpenak egitea, hitzeko, hitzik gabeko eta baliabide digitalak integratuz.
- > Gauzak ondo egiteko, akatsak onartzeko eta etengabe hobetzeko grina erakustea.

## Elkarrekin bizitzen ikasi:

- > Bere eskubide eta interes pertsonalak sendo eta gogoz defendatzea, eta sentitzen, pentsatzen eta egin nahi duena askatasunez eta besteekiko errespetuz adieraztea (asertibitatea).
- > Solaskidearen lekuan jartzea, arretaz entzutea, besteen pozak eta nahigabeak bereganatzeko sentibera izatea, eta laguntzeko prest egotea (enpatia).
- > Gatazken aurrean besteen arrazoiak entzutea, bereak errespetuz adieraztea, eta elkarriketaren eta negoziazioaren bidez konpontzea.
- > Taldeko jardueretan ekimenez eta arduraz jokatzeko, giro ona suspertzea, guztiekin lan egiteko eta laguntzeko prest egotea.
- > Pertsonen arteko aniztasunaz baliatzea eta aldebikotasunaren eraginez elkar aberastea.
- > Pertsonen duintasuna errespetatzea eta harreman parekideak sustatzea edozein egoeratan eta edozein identitateko pertsonekin (edozein izanda haien genero edo sexu identitatea, arraza, itsura, hizkuntza, jatorria, iritzi politikoa, erlijioa, egoera ekonomikoa, edo beste edozein ezaugarri).
- > Mota guztietako bazterketa edo indarkeriaren aurrean, izan fisiko edo psikologikoa, erantzukizuna hartzea eta aurre egitea.
- > Besteen bizitza pribatua eta intimitatea errespetatzea.
- > Bere ondasunak eta besteenak errespetatzea eta zaintzea.
- > Konbentzio sozialen eraginez adostutako arauak (ordutegia, garbitasuna, kortesia, jateko eta edateko ohiturak, jolas-arauak...) betetzea.
- > Bere ingurune hurbileko kutsadura sahiestea, garbitasuna mantentzea, materialak eta energia ez xahutzea eta landareak eta animaliak zaintzea.

## Norbera izaten ikasi:

- > Sentitzen, pentsatzen, desiratzen, esaten eta egiten dituenari buruz distantzia hartzea eta hausnartzea (metakognizioa).
- > Norberaren irudia, identitatea eta jokamoldeak (identitate sexuala barne) eraikitze eta modu erosoan adierazteko gaitasuna izatea.



- > Bere ezaugarri pertsonalak (fisikoak, psikologikoak, sozialak, akademikoak...) ondo eza-gutzea eta irudi erreala izatea (autokontzeptua).
- > Bere buruaz balorazio baikorra egitea eta bere buruan konfiantza eta huts egiteari ez beldurrik izatea (autoestimua).
- > Bere kabuz inizatibak eta erabakiak hartzea, gauzatzea eta ondorioetaz jabetzea (auto-nomia eta burujabetasuna).
- > Hainbat identitate aukeren artean, euskaldun izatearen identitate pertsonala modu inklusiboan eraikitzea.
- > Euskara berezko erabilera eta euskal kulturarekiko lotura zuzena duen pertsona izatea. Era berean, beste kultura batzuen ezagupena eta harremana duena.

## Komunikatzen ikasi:

- > Euskara ardatz hartuta, gaztelania eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat ahoz eta idatziz ulertzea, eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.
- > Hitzik gabeko hainbat kodetako informazioa ulertzea eta jarioz, autonomiaz, sormenez eta eraginkortasunez erabiltzea.
- > Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak modu sortzaile, kritiko, eraginkor eta seguru batez erabiltzea, ikasteko, aisiarako, inklusiorako eta gizartean parte hartzeko.
- > Hitzeko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian era-biltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonaletan, sozialetan, aka-demikoetan eta lanekoetan.

Diziplina-barruko oinarrizko kompetentziak. Diziplina-arlo/ikasgairen bateko baliabideak erabi-liz bizitzako maila pertsonalean, sozialean, akademikoan eta laborean arazoak eraginkortasu-nez konpontzeko behar direnak dira. Diziplina-matrize bat dute oinarrian, arloren bateko arazoan eta egoeren bitartez eskuratzen dira, baina diziplina-arlo bateko edo batzuetako arazoak eta egoerak konpontzeko aplikatu daitezke.

Honako hauek dira diziplina-barruko oinarrizko kompetentziak:

- > **Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia.** Hitzeko eta idatzizko testuak egokiro erabiltzea —euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean gutxienez—, bizitzako hainbat alorretako egoeratan, eraginkortasunez eta hizkuntza-aniztasuna errespeta-tuz. Literatura-hezkuntza garatzea ere bai, nork bere burua eta inguruko mundua hobeto ezagutzeko.
- > **Matematikarako kompetentzia.** Jakintza matematikoa aplikatzea bizitzako premiekin zerikusia duten arazoak interpretatzeko, deskribatzeko, azaltzeko eta haiei erantzuteko, arloaren berezko pentsamendu- eta adierazpen-moduak eta tresnak erabilia.

> **Zientziarako eta Teknologiarako kompetentzia.** Jakintza eta metodologia zientifikoa modu koherentean, egokian eta zuzenean erabiltzea sistema eta fenomeno naturalak interpretatzeko, eta aplikazio zientifiko-teknologikorik esanguratsuenak erabiltzea hainbat testuingurutan, errealitatea ebidentzia zientifikoaren ikuspegitik ulertzeko, eta bizitzako alor eta egoera guztietan erabakiak arduraz hartzeko. Munduak dituen baliabide naturalen mugen kontzientzia hartzea, gure kontsumo eta osasun ohiturek eta hauek izan ahal dituzten ondorioak baloratuz, ingurugiroa zaintzeko konpromisoa hartzea.

> **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.** Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidaria eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.

> **Arterako kompetentzia.** Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki balioes- tea, garai eta erabilera anitzetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudime- na eta sormena erabiliz.

> **Kompetentzia motorra.** Norberarekin eta besteekin, bai eta inguru fisiko eta kulturalarekin lotuta dauden esparru motorreko egoerei aurre egitea modu autonomoan, kritikoan, sortzai- lean eta espresiboan. Horretarako, bada, jokaera motorra garatzen lagunduko duten eza- gutzak, prozedurak eta jarrerak integratu beharko dira, bizi-estilo osasuntsu baten bitartez ongizate integrala lortzen lagunduko duten jarduera fisiko eta kirol-jarduerak praktikatzeko ohiturak hartuz.

## 3.2. Irakaslearen profila

Irakaslearen profilean zehazten dira ikaslearen irteera-profila erdiesten laguntzeko zein konpe- tentzia eskuratu behar dituen. Irakasleak bere lanbidea era egokian bideratzeko egitekorik nagusienak hauek dira:

> Ikastolaren izaera, egitura, antolaketa eta proiektu pedagogikoa ezagutzea, eta kudeake- tan eta etengabeko hobekuntzan parte hartzea.

> Ikastolako lankideekin, gurasoekin eta gizarte-eragileekin koordinatzea eta elkarlanean jardutea.

> Beste ikastola, Ikastolen Elkartea, ikastetxe eta hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituzten erakundeekin elkarlanean jardutea.

> Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua era integralean ikustea eta eguneroko bizitzako eta arlo/ikasgaietako egoeren bidez, ikasleek pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, besteekin bizitzen ikasteko, izaten ikasteko eta ekiten nahiz egiten ikasteko proze- durak eta jarrerak irakastea.

> Irakasteko edukietan, ikaslearen ezaugarrietan eta kompetentzietan oinarrituz, ikasteko egoerak proposatzea, gelan aplikatzea eta ebaluatzea.

- > Ikaskuntza- eta irakaskuntza-prozesuak ikertzea, berriztatzea, garatzea eta ebaluatzea, gogoeta eginez haien eta irakasle-taldeen praktikari buruz eta prestakuntza-sareei buruz.
- > Ikaslearengan ikasteko grina piztea eta bizi-proiektua eraikitzeke orientazioa ematea, familiarekin elkarlanean.
- > Ikaslearen ongizateaz arduratzea, ikastolako eta ikastolatik kanpoko bizitzan gertatzen zaionarekin interesa adieraziz.
- > Proposamen didaktikoak ikasle bakoitzaren premietara egokitzea eta doitzea.
- > Jarduerak gauzatzea gure erkidegoko hizkuntza ofizialetan eta, hala badagokio, atzerriko hizkuntzaren batean.
- > Informazio eta Komunikazio Teknologia erabiltzea eta curriculumean txertatzea.
- > Ikuspegi etikoa garatzea irakasle-lanari buruz eta konpromiso sozialari buruz.
- > Norberaren prestakuntza jarraitua planifikatzea, norberaren lanari buruzko eta gizartearen beharrei buruzko gogoeta eginez.

Irakasle onaren, hau da, ikasleen irteera-profilean oinarrituz emaitza onak erdiesten dituenaren ezaugarriak zein diren jakiteko ikerketen ondorioak hauek dira:

- > Bere irakasteko eraren eragina ikasleengan etengabe aztertzea (metakognizioa).
- > Helburuak eta ebaluazio-irizpideak argi azaltzea.
- > Era kooperatiboan ikasten irakastea.
- > Gutxiago hitz egitea du eta gehiago entzutea.
- > Ikasleekin harremana (feedback) ondo kudeatzea.
- > Enpatia erakustea.
- > Ikaslea motibatzea.
- > Malgua izatea eta irakasteko era aldatzea du behar denean.
- > Berrikuntzen aurrean jarrera irekia erakustea eta erronkak atsegin izatea.
- > Gogo handiz lan egitea.

Irakasle berrien hautaketa eta plantilako etengabeko irakasleen prestakuntza planak irakasle-profilearen beharretara egokitu behar dira.

## 3.3. Familiaren eta hezkuntza komunitatearen eredua

Ikaslea ingurune jakin batean kokatzen da eta ingurune horren eraginpean eraikitzen du bere izaera. Ingurune horren osagai esanguratsuak dira bereziki besteen artean, familia, irakasleak, lagun artea, komunikabideak, IKT baliabideak eta bere ingurune hurbileko beste eragileak. Mundu ikuskerak eta baloreak ulertzeko erak ugariak eta sarritan kontrajarriak dira. Giro horretan, pertsonaren nortasuna era harmonikoan egituratzea askoz ere zailagoa da. Eragile horiek osatzen dute hezkuntza komunitatea eta horien jokaerak, ikastolaren hezkuntza-eredu pedagogikoaren eta ikaslearen irteera-profilaren alde edo aurka egoteak, erruz laguntzen du edo eragozten du giroa eta ikastolaren betebeharra.

Gurasoak dira seme-alaben lehen eta legezko hezitzaileak eta irakasleekin batera, bakoitza bere eginkizun propioetatik, ikaslearen irteera-profila erdiesten lagunduko dioten giro egokia lortu behar dute. Aurrekoak eskola guztietarako balio du, baina Larramendi Ikastola gurasoak eta laguntzaileek sortutako hezkuntza kooperatiba da, eta bere egitekoa, elkar lagunduz eta auzo lanean, seme-alaben gaitasunak garatzea eta bizitzarako ondo prestatzea da.

Familiak eta eskolak, biak bat eginez, hezkuntza-eredu partekatua izateak, zentzu berean jokatzek eta konfiantza giroan aritzeak, garrantzia berezia hartzen du seme-alabek/ikasleek bizitzarako ezinbestekoak diren oinarrizko konpetentziak eskura ditzaten.

Egoera horretan, garrantzitsua da ikaslearen izaera eraikitzeko nukleoa osatzen duten familiaren eta ikastolaren artean norabide berean aritzea.

### Familia barruko seme-alabekiko harremanak

- > Babesa eta segurtasuneko eta konfiantzazko ingurua eskaintzea; egoera txarretan eta onetan maitasuna erakustea.
- > Gurasoek konfiantza eta itzaropena izatea beraien seme-alabekiko eta beraien ikaskuntza prozesuaren eta ongi izatearen gertuko jarraipena egitea.
- > Entzuteko eta komunikatzeko prest egotea.
- > Esperimentatzeko aukerak ematea eta erabakiak hartzen laguntzea.
- > Familiak ardura berezia hartzea pertsona osoaren garapenerako oinarrizko zehar-konpetentziak etxeko bizitzan lantzeko eta, irakasleekin batera, beraien seme-alabek pentsatzen eta ikasten ikasteko, komunikatzen ikasteko, besteekin elkarrekin bizitzen ikasteko, izaten ikasteko eta ekiten nahiz egiten ikasteko prozedurak eta jarrerak irakasteko.
- > Mugak jartzea eta gauzak errazegi ez lortzea; arau argiak finkatzea eta erabakiak mantentzea; nagusikeriarik gabe autoritatea erakustea.
- > Bizitzeko ereduaren eta koherentziaren bidez baloreak transmititzea.



## **Ikastolaren eta familiaren arteko lankidetzaz**

- > Familiak beraien artean harremanetan jartzea eta antolatzea elkarri laguntzeko, eta hezkuntza komunitateko beste kideekin batera lankidetzaz aritzea.
- > Ikastolak eta familiak elkarrekin adostutako hezkuntza-eredu pedagogiko berean oinarritzea.
- > Irakasle tutoreen eta gurasoen arteko harreman pertsonal hurbila mantentzea eta seme-alaben etxeko eta ikastolako lanen eta hezkuntza irizpideen arteko lotura egitea.
- > Ikastolak hezkuntza-eredu pedagogikoarekin bat datorren gurasoen prestakuntza eskaintzea.
- > Gurasoek parte hartzea ikastolak eskaintzen dituen ekimenetan.
- > Gurasoak prest azaltzea ikastolako organoetako kide izateko.
- > Gurasoak prest azaltzea Ikastolaren onerako jartzen, beraien ezagutza profesionalak ahalbiderratzen dituzten ezagutzak.
- > Gurasoek, arazoak suertatzen direnean, jarrera proaktiboa eta errespetuzkoa erakustea.
- > Ikaslearen profileen azaltzen diren jarreraren eredu izateko ahalegina egitea, seme-alabekin, ikastolako profesionalekin eta komunitateko kide guztiekin harremanetan dagoenean.

## **Hezkuntza komunitateko kanpoko beste eragileekin lankidetzaz**

Ikastolak ezin du gauzatu duen hezkuntza proiektua era isolatuan. Ikastolak eta gurasoek norabide bereko hezkuntza ereduari oinarritzeak duen garrantzia aipatu dugu, baina ikasleak, adinaren arabera, beste era askotako eraginak jasotzen ditu: ekonomia sistema, merkatuaren arauak, politikaren jokoak, komunikabideak, publizitatea, mugikorren erabilera, lagunartea, ... Eragin horiek ez datoz bat sarritan gurasoen eta ikastolaren hezkuntza proiektuko ereduaren baloreekin. Ikastolaren egitekoa da ereduaren eta perfektua ez den errealitatearen arteko zubi lana egitea eta eragin guztiak norabide berean bideratzen saiatzea. Alde horretatik, hezkuntza eta kultura alorreko beste erakundeekin, lankidetzaz sarea osatzeak asko indartzen du ikastolaren zeregina.

Horretarako, honako lankidetzaz ereduari proposatzen da:

- > Euskal Herriko eta, batez ere, Mungialdeko ekimenetan, bereziki hezkuntzarekin, euskararekin eta euskal kulturarekin lotura dutenetan, gure ekimenez antolatuta edo besteen ekimenez (udaletxe, kultur eta kirol elkarte...) eskaintzen zaigunean parte hartzea.
- > Hezkuntza Saileko zerbitzuekin (ikuskaritza, berritzegune, ISEI-IVEI,...) eta, oro har, antzeko hezkuntza ikuspegian ari diren ikastetxeekin, lankidetzaz bideak sustatzea.
- > Ikastolen Elkartearekin, partaidetza eta ikastolekin lankidetzaz bideak sustatzea. Oro har, Larra-mendi Ikastolaren hezkuntza ereduaren antzera, ikuspegi humanista duten erakunde guztiekin lankidetzaz bideak sustatzea.

## 3.4. Kalitatezko hezkuntzaren ezaugarriak

Hezkuntza kalitatezkoa dela esateko, ikasle guztien garapena espero zitekeena baino gehiago eta era iraunkorrean eragin behar du. Hau da, gerta daiteke eskola batek beste batek baino ikasleen emaitza hobekiago lortzea, baina emaitza apalagoak lortzen dituen kalitate gehiago erakustea. Hezkuntzaren eraginez lortzen den balio erantsia da kalitatezko hezkuntzaren ezaugarria.

Hezkuntzaren esparruan ikerketa ugari daude kalitatezko eskolen ezaugarriak zein diren jakiteko. Jarraian, ikerketa horietan maiztasunez aipatzen diren ezaugarrietan oinarrituz, Larramendi Ikastolak bere hezkuntza-eredua osatzeko hartzen dituen erreferentziako ezaugarriak jasotzen dira:

- > Hezkuntza-eredu pedagogikoari buruzko adostasuna, hezkuntza komunitateko kideen (guraso, irakasle, ikasle...) artean.
- > Lidergo partekatua, profesionala eta integratzailea.
- > Lan-giro atsegina.
- > Ikaslea eta ikaskuntza prozesuak dira ikastetxearen erdigune: ikasteko denboraren optimizazioa sustatzen da.
- > Irakasle konpetenteak, ikasleekiko konpromisoa dutenak, garapen profesionala eta lan-postuan egonkortasuna dutenak.
- > Ikasleen garapenari buruz itxaropen handiko irakasleak, ikasleekin harremanetan egoteko eta laguntzeko prest daudenak.
- > Ikasleen jarraipena maiztasunez eta era sistematikoan egiten duten irakasleak.
- > Ikastetxe osoaren funtzionamenduari buruzko eta ikasleen emaitzei eta aurre ikusitako lorpen-mailari buruzko ebaluazioa egiten duena.
- > Ikastetxearen eta familien arteko lankidetzak.
- > Bere esperientzian oinarrituz etengabe ikasten eta berritzen den ikastetxea.

Jarraian aipatzen diren ezaugarriak aurrekoen osagarriak dira. Aurreko ezaugarriak eskola bere osotasunean hartzen dute. Jarraian aipatzen direnak, ikaslearen lorpen-maila gehien eragiten duten irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko alderdiak identifikatzeko ikerketetan oinarritzen dira. Eragin handiena duten hamar eragileak, eraginaren arabera ordenatuz, hauek dira:

- > Ikasleen espektatibak: ikasleak bere lorpenei buruz duen uste baikorra.
- > Irakasteko ikuspegi eraikitzailea: irakaskuntza ikaslearen aurre-ezagutzetan oinarritzen da eta ikaslearen protagonismoa eragiten du.
- > Irakasleak feedback-a egiteko era: ikasleak, irakasleak egiten dion feedback-a gogo onez hartzen badu eta baliagarria zaiola irizten badu, errazago zuzenduko ditu okerrak eta ikasiko du.
- > Irakaslearen sinesgarritasuna: Ikasleen ustez, irakasleak ondo erakusten du eta irakasten laguntzen du.

- > Ebaluazio hezitzailea: irakasleak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren etengabeko ebaluazioa egiten du eta hobetzeko bideak eskaintzen ditu.
- > Irakasleak bere irakaskuntza jardunaldia bideoz grabatzen du eta bera baino adituago batekin aztertzen du.
- > Eztabaidak egitea: ikaslearen komunikatzeko konpetentzia eta pentsamendu kritikoa eragiten ditu, eta irakasleari, ikaslearen ulermen mailaren informazio aberatsa ematen dio.
- > Irakaskuntza pertsonalizatua. Ikasteko zailtasunak dituztenekin eta gaitasun handiko ikasleekin erabiltzen diren prozedurak, baliagarriak dira era berean beste ikasle guztientzat.
- > Irakaslearen argitasuna: komunikatzeko orduan, eta helburuak eta ebaluaziorako lorpen-adierazleak finkatzerakoan.
- > Feedback-a: ikasleak bere pentsamenduko prozesuak hobetzeko bidea, irakasleak egiten dion feedback-aren bidez lortzen da.

Badira ikerketa enpirikoak, gizakiak nola ikasten duen, adimena nola garatzen den, interesak nola eraikitzen diren, eta prozesu horiek pertsona bakoitzak bere erara nola eraikitzen dituen azaltzen dutenak. Ikerketa horien ondorio nagusiak hauek dira:

- > Sozio-konstruktibismoaren ikuspegia da irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzeko eraginkorra. Konstruktibismoaren ikuspegiaren arabera, ezagutza subjektuaren jardunaren fruitua da eta aurreko ezagutzak eta berriak kontrastatuz eta moldatuz ikasten da. Sozio-konstruktibismoaren ikuspegiak beste zerbait eransten dio aurrekoari, subjektuaren jarduna eraginkorragoa dela testuinguruan eta egoeretan kokatuz eta beste kideekin batera joan-etorrian lankidetzan arituz.
- > Ikaskuntzaren azken helmuga, bizitzako era desberdinetako egoerei aurre egiteko, eskuratu-tako ezagutzak eta trebetasunak era sortzailean eta malguan erabiltzeko gaitasuna lortzea da.
- > Ikaskuntzaren bide lagunak emozioa, kognizioa eta motibazioa dira. Emozio eta motibazio baikorrek garapen kognitiboa suspertzen dute, eta ezkorrek, aldiz, eragozten.
- > Ezagutza ugari lortzea baino eraginkorragoa da ezagutzak sakontzea eta horiek egoera desberdinetan aplikatzen ikastea.

Ikaslearen lorpen-maila eragiteko ezaugarri metodologiko hauek, Larramendi Ikastolaren hezkuntza-eredua osatzeko erreferentziazko ezaugarriak dira.

Aldi berean, hezkuntzaren kalitatea bermatzeko, Ikastola osoaren funtzionamendu egokia beharrezkoa da eta hezkuntza komunitateak adostutako estrategiarekin bat datorrela ziurtatzea. Horretarako, Ikastolako antolaketa eta kudeaketa ereduak koherentea eta kalitatezkoa izan behar du. Ideia hau dokumentu honen hurrengo atalean sakontzen da.

# 4. Antolaketa eta kudeaketa eredua

Hezkuntza Proiektuaren atal honetan, Ikastola Proiektua bideratzeko **antolaketa eta kudeaketaren ikuspegi orokorra** finkatzen da.

## 4.1. Printzipioak

Nortasun ezaugarriak atalean lehenesten diren balioak -euskalduntasuna, gizarte ardura, inklusibotasuna, aniztasuna, hezkidetzatza, erlazioak, parte-hartzea, elkarlana, gardentasuna, profesionaltasuna, berrikuntza eta erantzukizuna- guztiz erabilgarri zaizkigu ere antolaketa eta kudeaketa ikuspegiaren zerikusia duten printzipio gisa.


Antolaketa- eta kudeaketa-ikuspegiaren erdigunean ikastolako hartzaile diren ikasleak eta gurasoak daude. Ikasleak dira ikastolaren erdigunea eta beraien garapena da ikastolako zerbitzuen funtzioa. Gurasoena (tutore, ordezkariak) da seme-alaben hezkuntzaren ardura nagusia eta beraiei laguntzeko asmoz egituratzen da ikastola.

Ikasleak eta gurasoak, ordea, ez dira hartzaile pasiboak. Ikasleen egitekoa da bere garapena erdies-teko betebeharrak arduraz betetzea eta berari dagokion antolaketa eta kudeaketa esparruetan parte hartzea. Gurasoen partaidetza, bestetik, ezinbestekoa da ikastolako hezkuntza eredua definitzeko, seme-alaben hezkuntza ibilbidea ikastolako hezitzaileekin batera jarraitzeko, eta ikastolako gobernu eta funtzionamendu organoetan parte hartzeko.

## 4.2. Gobernu- eta funtzionamendu-egituren ikuspegia

“Larramendi Ikastola Irakaskuntza Kooperatiba” titular juridiko bakarra da eta bere Estatutu propioen bidez erregulatzen da. Autonomoa izanik, bere borondatez, “Euskal Herriko Ikastolak Europar Kooperatiba Elkarteko” partaide da, ikastolek elkarrekin dituzten helburuetan elkar laguntzeko. Bere autonomia maila baldintzatuta dago indarrean dauden lege araudien esanetara.

Larramendi Ikastolaren antolaketa eta kudeaketa bideratzeko, prozesu bakarra osatzen duen bi eratako egiturak eta gestio-mailak bereizten dira: gobernu-egitura eta funtzionamendu-egitura.



Dokumentu honetan, kudeaketa-maila bakoitzaren egitekoak ondo bereizteko eta beraien arteko osagarritasuna irudikatzeko, ikuspegi orokorra azaltzen da. Kooperatibaren Estatutuetan eta Barne Funtzionamendurako Arautegian zehazten dira egitura bakoitzeko organoen ikuspegia, osaketa, hautaketa eta funtzioak.

## Gobernu-egitura

Gobernu-egituran finkatzen dira ikastolaren norabide nagusiak, bertan onartzen dira planak eta ebatzen dira emaitzak. Norabideak erabakitze behar den informazioa era askotakoa izan daiteke (derrigorrez bete beharrekoa edo hautazkoa) eta eragile desberdinen ekimenetik (hezkuntza-administrazioa, guraso, irakasle, langile, ikasle, beste gizarte eragile...) etor daiteke.

Ikastolaren gobernu-organismoak, Batzar Nagusia eta Kontseilu Errektorea dira.

- **Batzar Nagusia.** Ikastolako organo erabakitzailerik gorena da. Bertan, Larramendi Kooperatiba Elkarteko bazkide erabiltzaileek (edo aktiboek) eta laguntzaileek hartzen dute parte:

> Bazkide erabiltzaileak, kooperatiba honetan matrikulatuta dauden seme-alaben gurasoak edo haurren ordezkariak eta tutoreak dira.

> Bazkide laguntzaileak, kooperatibaren helburu soziala lortzen lagundu dezaketen eta gainerako bazkideen interes komuna berma dezaketen beste guztiak dira. Bazkide laguntzaileek, gehienez, boto herena izango dute Batzar Nagusian eta Kontseilu Errektorean.

- **Zaintza Batzordea** Batzar Nagusiak hautatutako kidez osatua dago, eta Estatutuetan finkatuta dauden arauen zaintzaz arduratzen da.

- **Kontseilu Errektorea.** Batzar Orokorrak hautatuta, funtzionamenduko organoetara hurbiltzen duen organo ordezkatzailerik eta kudeatzailerik da. Kontseilu kideen artean aukeratzen dira Presidente, Presidenteordea, Diruzaina eta Idazkaria.

Kontseilu Errektoreak bi alderdien arteko zubi lana egiten du:

> Batzar Nagusiari begira: ikastolaren gai nagusiei buruzko informazioa eman eta erabaki nagusietan onespina eskatu.

> Funtzionamendu egiturari begira: ikastolak garatu behar dituen lerro nagusiak finkatu, plangintzak onartu, betekizunaren informazioa jaso eta kontrolatu.

Kontseilu Errektorearen azpibatzaileak. Kontseilu Errektoreak, Batzar Nagusiari eta Funtzionamendu egiturari begira, bere egitekoa era efizientean betetzeko, beharren arabera azpibatzaileetan egituratzen da (Pedagogia batzordea, Ekonomia batzordea, Komunikazioa, Azpiegiturak, Zerbitzuak, ...). Azpibatzaileetan erabakitako helburuak eta norabideak funtzionamendu-egiturako arduradunen bidez planifikatu, koordinatu eta gauzatu dira.

## Funtzionamendu egitura

Funtzionamendu-organismoetan, Gobernu-organismoetan finkatutako norabide nagusiak garatzeko planak prestatzen dira. Behin planak Gobernu-organismoetan onartuz gero, egikaritzen dituzte eta egikaritze hori Gobernu-organismoek ebaluatu eta berretsiko dituzte.



Funtzionamendu-egitura Gobernu-Organoen zuzeneko menpekotasunean dago, baina autonomia du bere funtzioen egikaritzean.

Funtzionamendu-egituraren barruan bi eratako egiturak bereizten dira: Zuzendaritza taldea eta organo operatiboak.

#### - **Zuzendaritza taldea**

Ikastolaren kudeaketa pedagogiko eta ekonomiko-administratiboaz arduratzen da. Zuzendari-kudeatzaileak izendatzen ditu zuzendaritza taldeko beste kideak.

Zuzendaritza taldeko kideak dira: Zuzendari-kudeatzailea, ikastolako hezkuntza arduraduna, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko etapetako arduradunak eta administrazio-zerbitzuetako arduraduna.

Zuzendaritza-taldeak bi alderdien arteko zubi lana egiten du:

> Kontseilu Errektoreari begira: honen lerro nagusiak jaso, proiektuak eta programak prestatu, onespina jaso ondoren bete daitezzen neurriak hartu, eta emaitzen informazioa eskaini.

> Egitura operatiboari begira: proiektuak eta programak elkarrekin prestatu, onespina jaso ondoren, indarrean jartzeko eragile guztien koordinazioa eta denbora antolatu, betetzen diren jarraitu eta hobekuntza planak bideratu. Ikastolako irakasle, langile eta bestelako agenteen lana gidatzeko ardura du.

- **Organo operatiboak** hiru multzotan banatzen dira:

#### > **Arlo pedagogikoa**

Multzo honetan biltzen dira hezkuntza prozesuko irakaskuntza-ikaskuntza eginkizunarekin zuzeneko harremana duten organoak:

>> **Etapako koordinatzaileak:** beraiek dira etapako arduradunarekin batera, etapa bakoitzeko koordinatzaileak eta arduradun zuzenak.

>> **Tutoreak:** ikasleen eta geletako arduradun zuzenak dira. Gurasoen eta ikasleen arteko, ikasle-irakasleen eta ikasle-ikasleen arteko eginkizunak eta harremanak bideratzeko funtzioa dute.

>> **Orientazio zerbitzua:** Tutoreen eta irakasleen laguntza zerbitzua da, batez ere, ikasleen egoera ezberdinetan zer egin behar den bideratzeko.

>> **Mintegiak:** diziplina-barruko konpetentzietan zehar-konpetentziak uzartuz, maila, ziklo eta etapa ezberdinetan era jarraituan eta etenik gabe irakatsi daitezzen ardura dute.

>> **Irakasleak:** beraiei dagokie ikasleen ikaskuntza prozesuak bideratzen laguntzea, oinarriko konpetentziak lor ditzaten.

>> **Irakasle klaustroa:** Ikastolako etapako zein ikastola osoko irakasle guztiak, arlo pedagogikoaren inguruko gaiak aztertzeko biltzen dituen organoa da.

### > **Arlo ekonomiko-administratiboa eta zerbitzuak**

Multzo honetan biltzen dira hezkuntza prozesuak bideratzeko beharrezkoak diren baliabideak eta zerbitzuak kudeatzeko orgaboak:

>> **Administrazio saila:** irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak bideratzeko baliabideak eta zerbitzuak kudeatzen ditu (ekonomia, instalazioen mantenua, ekipamenduak, ...)

>> **Jangela:** eguerdiko bazkari zerbitzuaz eta bazkalondoko zaintzaz arduratzen da.

>> **Garraioa:** ikasleak ikastolara eramaten eta etxera itzultzeko zerbitzuaz arduratzen da.

>> **Garbiketa:** ikastola txukun eta higiezez mantentzeaz arduratzen da.

>> **Eskolaz kanpoko ekintzak:** ikastolak, bere irakaskuntza orduetatik kanpo, bereziki ikasleekin, baina baita gurasoekin edo beste batzuekin, antolatzen dituen zerbitzuak dira: kirola, kultura, mendi-irteerak ...

### > **Hezkuntza komunitateko kideen arteko partaidetza**

Multzo honetan sartzen dira hezkuntza komunitateko kide desberdinen arteko eta gobernu-organoetako eta funtzionamendu-organoetako kideen elkar lankidetzaz eskatzen duten organoak:

>> **Eskola kontseilua:** gurasoen, ikasleen eta irakasleen ordezkariak biltzen dituen organoa da, sortzen diren kezkak eta soluziobideak elkarrekin adosteko.

>> **Enpresa batzordea:** ikastolako langileen ordezkariak osatzen dute lan-arloko gaiez arduratzeko. Horretarako, Zuzendari Kudeatzailearekin mantentzen dute harreman zuzena.

>> **Kontratatorako bitariko batzordea:** ikastolako titularren ordezkariak eta langileen ordezkarien artean osatutako batzorde parekidea, hautagaien balorazioa eta kontratatzeke proposamena egiteko.

## 4.3. Kudeaketa aurreratuaren ezaugarriak

Ikastolak gai izan behar du kalitatezko zerbitzuak eskaintzeko, eta, beharrezkoa denean, eraldatzeko ahalmena izan behar du, sortzen diren aukera interesgarri berriak baliatu ahal izateko. Horretarako:

- Kalitatezko hezkuntza zerbitzua eskaintzeko estrategia zehaztu eta garatu behar dugu, hezkuntza komunitate osoak partekatutako ikuspegi, balio eta helburuekin. Helburu komun hauek betearazteko **lidergo** partekatu, profesional eta integratzailea behar dugu.

- Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuen **etengabeko hobekuntza** da ikasleen garapena modurik eraginkorrenean erdiesteko muina. Gogoeta-prozesu irekiak sortu behar ditugu, gure inguruneko pertsonak eta beste erakundeetakoak partaide eginez; horrela, esparru guztietan **berrikuntza** bultzatuko duten testuinguruak sortuko ditugu, etengabe ikasten duen ikastola bilakatu.

- Gure hartzailleekin (ikasle eta familia) elkarlanean oinarritutako epe luzerako lotura sendoak sortu behar ditugu, beraien beharrak behar bezala ulertu eta horren arabera moldatzeko.
- Beharrezkoa da pertsonekin komunikazioa eta parte-hartzea indartzea, lan giro egoki bat sortu eta ikastola eta hezkuntza proiektuarekiko haien ilusioa eta inplikazioa lortzeko. Funtsezkoa da irakasleen artean epe ertain eta luzerako ikuspegiarekin garapen profesionalerako aukerak baliatzea, gaitasunak eta ikasleekiko inplikazio maila areagotu eta ikasketarako laguntza, komunikazio eta errefortzua indartuz.
- Gizartearekiko daukagun konpromisoari tinko heldu behar diogu, gure inguruan dagokigun papera erantzukizunez eta beste eragileekin elkarlanean betez.
- Beste kudeaketa-modu batzuek baino balio erantsia duten emaitza hobeagoak lortu behar ditugu era orekatu eta iraunkor batean. Ikasleen aldizkako jarraipen sistematikoa egin behar dugu eta, era berean, ikastolaren jarraipen eta ebaluazioa bere osotasunean, jarduerari eta helburuen betetze mailari buruzko informazioa bildu eta aztertuz.